

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO 2023KO AURREKONTU OROKORRAK ONARTZEKO LEGEAREN AURREPROIEKTUARI BURUZKO TXOSTENA.

Ekonomia eta Ogasun Sailak eskatuta egin da txosten hau, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak (Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzeari buruzko Legea) 20.6 artikuluan Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari esleitutako eskumena baliatuta.

Txostenaren helburua da, batetik, egiaztatzea behar bezala betetzen dela 4/2005 Legearen 19. eta 20. artikuluetan agindutakoa eta Gobernu Kontseiluak 2012ko abuztuaren 21eko Erabakiaz onartutako jarraibideetan ezarritakoa (genero-eragina aurretiaz ebaluatzeko eta gizonen eta emakumeen desberdintasunak desagerrarazteko eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzeko jarraibideak), eta, bestetik, hobekuntzak proposatzea.

Euskal Autonomia Erkidegoko 2023ko ekitaldiko aurrekontu orokorrak onartzea da eskatutako txostenak aztertzen duen lege-aurreproiektuaren helburua.

Beraz, xedapen arautzaile orokorra da, eta generoaren arabera zer eragin duen ebaluatu behar da, lehenengo jarraibidearen 2.1 apartatuan ezarritakoaren arabera. Horri begira, generoaren araberako eraginari buruzko txostena eman du arauaren organo sustatzaileak, 1. eranskinean jasotzen diren baldintzetan eta lehenengo jarraibidearen 3. eta 4. apartatuetan aurreikusitakoaren arabera.

Egiaztatu dugu bete egin direla 4/2005 Legean aurreikusitako izapide formalak eta generoaren araberako eragina aurretiaz ebaluatzeko jarraibideak. Horrenbestez, genero-eraginari buruzko txostenaren edukiari eta hura egiteko prozesuari dagokienez, honako ohar eta proposamen hauek egin ditugu.

Aipatutako legearen aurreproiektuak generoaren arabera zer eragin duen aztertzeko txostenaren edukia baloratu baino lehen, aurretik zenbait gogoeta egingo ditugu

prozesuari berari, egungo egoerari eta prozesua egiteko metodologiari buruz, garrantzitsuak iruditzen baitzaizkigu:

Lehenik eta behin, Eusko Jaurlaritzak aurrekontu orokorretan duen estrategiak oinarritzat du politika publikoak ez direla neutroak generoari dagokionez; hau da, baliteke emakumeei eta gizonei berdin ez eragitea, eta, beraz, begirada kritikoa behar dute desparekotasunak murriztean izango duten eragina zehazteko. Premisa horren arabera, Eusko Jaurlaritzaren ekintza osoa planifikatzeko, kontuan hartu behar da politika publikoen xede diren emakumeek eta gizonek ez dituztela baldintza eta aukera berberak, eta ez dituztela behar eta helburu berberak ere.

2023ko aurrekontu-jarraibideek aurrekontuak genero-ikusegiarekin diseinatzeko jarraitzeko konpromisoari eusten diote, eta onartzen dute hasitako bidea konplexua dela, paradigma-aldaketa dakarrelako eta denbora eta adorea behar direlako. Prozesu horrek hainbat fase ditu, eta horien artean nabarmentzen da genero-eraginaren txostena, dokumentu horrek laburbiltzen baitu zer neurritan dagoen sartuta genero-ikusegia administrazio baten politika publikoetan, zer aurrerapen egin diren eta zer hobekuntza-proposamen egiten diren hurrengo ekitaldiari begira.

Bigarrenik, aurrekontu orokorrak egiterakoan, ezin dira alde batera utzi Errusiak Ukrainan egindako inbasioaren ondorioak, ez eta horrek COVID-19aren pandemiaren ondoren hasitako susperraldian duen eragina ere. 2021ean hazkunde-tasa handiak eta jarraipen-aukerak egon ziren arren, 2022an, gerra-gatazkak erabat aldatu du egoera ekonomikoa. Munduko ekonomian, eta, batez ere Europakoan, ziurgabetasuna da nagusi, eta hazkunde txikiko eta inflazio handiko aldi bat espero da. Hori, ezinbestean, eragina izaten ari da herritarrengan; bestek beste, erosahalmenaren murrizketei dagokienez. COVID-19aren pandemiak eragindako krisi sanitarioaren, ekonomikoaren eta sozialaren egoerak emakumeengan eta gizonengan eragin desberdina izan bazuen eta lehendik zeuden desberdintasunak larriagotu bazituen, egungo koiuntura ekonomikoak oraindik ere erakusten digu hierarkizazioa dagoela gizonen eta emakumeen harremanetan eta maila sozialean. Diagnostikoan esan bezala, hierarkizazioaren –desparekotasunaren erroaren– jatorria sexuaren arabera jokoera-estereotipo eta eredu soziokulturaletan

dago; eredu horiek emakumeei ematen diete etxearekin lotutako erantzukizuna, eta gizonei eremu publikorekin lotutakoa, balorazio eta aitortpen ekonomiko eta sozial oso ezberdina eginda. Bestalde, interseksionalitatearen ikuspegitik, kontuan izan behar da emakume askok diskriminazio anizkoitza jasaten dutela; izan ere, sexu-diskriminazioaz gainera, beste diskriminazio mota batzuk ere pairatzen dituzte, jatorri etnikoa, hizkuntza, adina, dibertsitate funtzionala, ondarea, sexu-orientazioa eta beste hainbat faktore direla eta. Kasu askotan, horrek guztiak baldintzatu egiten du emakumeek herritar gisa berez dituzten eskubideak baliatzea.

Testuinguru horretan, dagoeneko ezartzen ari diren edo ezarriko diren politikek, neurriek eta/edo programek helburu dute, batetik, pandemia sanitarioak eragindako krisitik suspertzea, eta, bestetik, Errusiak Ukrainan egindako inbasioaren ondorioak arintzea, eta, aldi berean, EAEko ekonomiaren eraldatze- eta modernizazio-prozesua sustatzea, sendoagoa, inklusiboagoa eta erresilienteagoa izan dadin. Dena den, genero-eraginaren azterketa sistematikoa behar dute, ikuspegi interseksionaletik, eragin kaltegarriei erantzun hobea emateko eta benetako berdintasunerantz aurrera egiten jarraitu ahal izateko, inor atzean utzi gabe.

Era berean, funtsezkoa da hori EAEk datozen hamarkadetan izango dituen megajoerei aplikatzea; hau da, trantsizio teknologiko-digital, energetiko-klimatiko eta sanitario-sozial hirukoitzari, zeina, aldi berean, susperraldi demografikorako trantsizioak markatuko baitu.

Testuinguru horretan, Ekonomia eta Ogasun Sailaren lidergoak garrantzi berezia du, ez bakarrik aurreko ekitaldietan genero-eraginari buruzko txostena egiteko Jaurlaritzako sail guztiekin lankidetzan hasitako lan-prozedura ezartzearen bidez, baizik baita genero-ikuspegia aurrekontuan benetan txertatzen dela koordinatuta eta gainbegiratuta ere, *inor atzean ez uzteko*.

Era berean, nabarmentzekoa da zeinen garrantzitsua den sailetako eta erakunde autonomoetako berdintasuneko administrazio-unitateek egiten duten lana abian diren lan-

prozesuetan, bai eta gaur arte eginiko faseetan eman duten laguntza, aholkularitza eta inplikazioa ere.

Sail eskudunaren lidergoaz eta inplikaturako eragile guztien lanaz gain, ezin dugu ahaztu aurrekontu orokorretan genero-ikuspegia eraginkortasunez txertatzen laguntzen duten kontzeptu-esparruaren, metodologiaren eta prozesuen garrantzia. 2022ko aurrekontuen eraginari buruzko txostenean adierazi zen egokia zela estrategia berri bat diseinatzea, genero-ikuspegia aurrekontu orokorretan sartzeari bultzada berri bat ematearren, aipatu estrategia modu eraginkorrean ezarri ahal izateko prestakuntza beharrezko eta egokiarekin. Gaur egun ez dakigunez zer puntutan dagoen estrategia hori, hasiera eman izan ez balitzaio, berriro esan nahiko genuke oso garrantzitsutzat jotzen dela EAEko aurrekontuetan genero-ikuspegia txertatzeko prozesuan aurrera egiten jarraitzeko.

Metodologiari dagokionez, txostena prestatzeko, administrazio-prozedura arruntari jarraikiz, sail, erakunde autonomo eta partzuergo guztiek, EITBk eta Osakidetza txosten bat igorri diote Ekonomia eta Ogasun Sailari, hurrengo ekitaldirako estrategia orokorra eta jarduketa-lehentasunak azaltzeko. Ekitaldi honetan, SPRI taldeak eta URAk egin dute bat prozesuarekin.

- Aurreko ekitaldian bezala, eta denboran jarraipena egiteko asmoz, erakundeei eskatu zaie adierazi eta azal dezatela, bakoitzaren lan-ildoetatik, zein jardueraren egingo dituzten bi ardatz komun lehenetsien esparruan:
- Soldata Arrakalaren aurkako Plana
- EAEko Berdintasunerako VII. Planaren III. ardatza: “Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak”.

Alderdi horiek guztiak kontuan hartuta, ontzat ematen dugu genero-ikuspegia Jaurlaritzaren aurrekontu-jardueran txertatzeko egindako lana, konpromiso eta lidergo politikoa sendotzen jarraitu da eta, eta aurretik aipaturako alderdi inplikaturarekin lan teknikoa egiteko estrategiak ere bai. Horrek guztiak bultzada emango lioke aurrekontu

orokorrak egiteko administrazio-prozeduran genero-ikuspegia txertatzeari, ezin baita ahaztu etengabeko ikaskuntza- eta hobekuntza-prozesua dela.

Genero-eraginaren txostenari dagokionez, izapidetze-denborengatik ezin dugunez edukia nahi bezain sakon aztertu, jarraian zenbait gogoeta azalduko ditugu:

- **EAEko diagnostiko sozioekonomikoari** heltzen dion apartatuari dagokionez, eraginari buruzko txostenak Euskal Autonomia Erkidegoko emakumeetan eta gizonetan krisi sanitario, sozial eta ekonomikoak izandako eragin bereizia aztertzen du, haiek baitira EAEko administrazio publikoen politiken hartzaile nagusiak. Apartatu honetan azalduko emaitzak abiapuntua dira aurrekontu-programek EAEko emakumeen eta gizonen bizi-baldintzetan duten intzidentzia ezagutu ahal izateko; alegia, abian diren jarduketek zein neurritan ahalbidetzen duten emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunaren egiturazko fenomeno unibertsal hori ezabatzea.
 - Ildo horretan, adierazi behar da aurkeztutako eragin-txostenak diagnostiko espezifiko bat eskaintzen duela, eta biztanlerian dauden genero-arrakala nagusiak agerian uzten dituela.
 - Horrez gain, COVID-19aren pandemiak emakumeengan eta gizonengan izan duen eragin diferentzialari buruzko datu batzuk biltzen dira, osasunari, pobrezia eta bazterketari dagokienez. Emandako datuek erakusten dute pandemiak, oraindik ere, desberdin eragiten diela emakumeei eta gizonei. Gure gomendioa da eragin horren jarraipena alde batera ez uztea, eta egungo gerra-egoeraren datuak edo emaitzak azterketari/diagnostikoari gehitzea. Datu horiei esker, pertsonengan eta komunitateetan izandako eraginak ulertu ahal izango ditugu, eta modu eraginkor eta ekitatiboan erantzun ahal izango dugu, bi gai horien ondorioei aurre egiteko abian jartzen diren politika, neurri eta/edo programen bidez, batez ere pobrezia eta desberdintasunaren hazkunde esponentzialari dagokionez, bai eta emakumeen egoera –eta, batez ere,

gizarte-kalteberatasuna izateko arrisku handiena dutenena– larriagotzeari dagokionez ere.

Sailen gastuari eta haien aurrekontu-programei buruzko azterketari dagokionez,

EAEko Aurrekontu Orokorrari buruzko datu banakatuak (atalak) eta aztertutako aurrekontuari buruzko datuak (sailka) eman dira, baita Osakidetza eta EITBren aurrekontuen azterketa ere. Aztertutako **aurrekontua** honela banatuta dago 2023an:

- **Eusko Jaurlaritzako sailen** aurrekontua (1.-12. atalak, EAEko administrazio besteko ente batzuei egiteko transferentziak kenduta): 6.886.313.651 €.
- Eusko Jaurlaritzako sailei atxikitako **erakunde autonomo eta partzuergoen** aurrekontu osoa: 1.304.241.487 €.
- **Osakidetza** administrazio-aurrekontua: 3.733.006.098 €.
- **EITB** administrazio-aurrekontua: 184.637.744 €.
- **SPRI taldearen** administrazio-aurrekontua: 129.100.955 €.
- **URA** administrazio-aurrekontua: 62.294.426 €.

Txosten honetan **aztertutako aurrekontua** EAEko **aurrekontu osoaren % 86 da**.

EAEko aurrekontu orokorra faseka aztertzean datza Ekonomia eta Ogasun Sailaren estrategia. Horrela, azterketetan sakontzen den heinean eta genero-ikuspegidun aurrekontu-prozesua sendotzen den heinean, handitu egingo da aztertu beharreko aurrekontu kopurua.

Aurrekontu-programak generoarekiko duen loturari dagokionez, txostenak zera azpimarratzen du: aurrekontu-programen aurrekontuaren % 99,8 jo dira generoarekin lotutako gaitzat. Datu horrek agerian uzten du aurrekontuetan ez dagoela genero-neutraltasunik programen ehuneko oso handi batean. Ehuneko horretatik, % 85ean garrantzi handi-ertaina eman zaio generoari.

Soldata-arrakalaren aurka borrokatzeko identifikatutako 2023ko aurrekontuari dagokionez, emandako datuen arabera, EAEko aurrekontu orokorraren % 0,33 da, eta Administrazio Orokorraren (1.-12. atalak, EAEko administrazioko beste ente batzuei egiten zaizkien transferentziak aparte), haren erakunde autonomoen eta partzuergoen aurrekontu aztertuen % 0,6 (8.190.555.138 €). Aurrekontu horren % 65 Hezkuntza Sailak abian jarriko dituen neurriei dagokie; % 18 Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailari, eta % 17, Lanbideri.

Indarkeria matxistaren aurka borrokatzeko identifikatutako 2023ko aurrekontuari dagokionez, txosten hau idazteko emandako aurrekontuko partiden arabera, EAEko 2023ko aurrekontu orokorraren % 0,19 da, eta Administrazio Orokorraren (1.-12. atalak, EAEko administrazioko beste ente batzuei egiten zaizkien transferentziak aparte), haren erakunde autonomoen eta partzuergoen aurrekontu aztertuen % 0,33. 2022rako identifikatutako ehunekoak % 0,22 eta % 0,36 izan ziren, hurrenez hurren. Murrizketa hori, funtsean, biktimak babestera bideratutako segurtasun pribatuaren murrizketaren ondorio da.

Genero-ikuspegiarekin planifikatutako jarduketei eta sailek 2022ko aurrekontuen kontura prestatuko dituzten eta **genero-ikuspegiarekin diseinatzen ari diren jarduketei dagokienez**, esan behar da aztertutako aurrekontuaren % 17 direla (2022an baino puntu erdi gehiago), Osakidetzarena eta EITBrena alde batera utzita.

Diseinuan genero-ikuspegia sartzeko prozesuan dagoen aurrekontuaren ehunekoa nabarmen ari da gora egiten. Hori horrela da, batez ere, plantillak genero-ikuspegiari buruz dituen ezagutzak hobetu direlako eta arau teknikoetan adierazitako irizpideak zorrotzago aplikatu direlako. Azken batean, genero-ikuspegiarekin kalifikatutako aurrekontua genero-ikuspegiarekin planifikatzeko prozesuan dagoen aurrekontuaren alde desplazatu dela ikusten da. Izan ere, identifikatutako aurrekontu osoaren (1.352.113.741 €) % 81 (2022ko aurrekontuetan baino 18 puntu gehiago) genero-ikuspegia txertatzen ari da pixkanaka, eta % 19 (18 puntu gutxiago 2022ko aurrekontuetan) genero-ikuspegiarekin diseinatuta dago.

Aurreko ekitaldian bezala, Lan eta Enplegu Saila nabarmentzen dena genero-ikuspegiaren esparruan aurkeztutako jarduketan aurrekontu bolumenagatik: guztizkoaren % 45,5. Horren atzetik daude Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila (% 24,2) eta Hezkuntza Saila (% 11,8).

Sail bakoitzari zuzendutako aurrekontu-programen azterketari dagokionez, eragin-txostenak xehe aztertu ditu sail guztiak.

Lege-aurreproiektuaren eta eragin-txostenaren idazketari dagokionez, oro har, hizkera ez-sexista erabili da, 4/2005 Legearen 18.4 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Azkenik, aurreko ekitaldietan adierazi dugun bezala eta zailtasunez jabetzen garen arren, berriro adierazten dugu komenigarria dela erakunde honi nahitaezko txostena lehenago eskatzea.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko urriak 24.